

#### **4. AKTA**

2002ko martxoaren 25ean ospatutako **GOBERNU BATZORDEA**.

Pasaiako Hirian eta bertako Udaletxean, bi mila eta biko martxoaren hogeita bostean, Joan Karlos Alduntzin Juanena Alkate jaunaren presidentzian, Joseba Belaustegi Cuesta Idazkaria bertan delarik, hurrengo zinegotziak bildu dira:

Joseba Xabier Portugal Arteaga j.  
Rikardo del Pozo Gil de Albornoz j.  
Obdu Lorenzo de Dios a.

arauz kurtsatu eta publikatu den deialdiaren arabera Gobernu Batzordea ospatzeko. Ez du ezin-  
etorria agertu Anjel Ouviaña Vidal jaun zinegotziak.

Lehendakaritzak konstataturik Udalbatza legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela,  
batzarraldia irekitzat eman du 18:00etan, ondoren Gaizerrendako hurrengo puntuak aztertzeari  
ekinez.

#### **1.- Aurreko batzarraldietako aktak, 2. eta 3., 02-2-25 eta 02-3-4 datakoak irakurri eta onartzea.**

Bertakoen kontsiderazioan jarriarik atalburuan aipatzen diren aktak, erabaki da beren osoan ontzat eman eta dagokien Akta liburuan transkribatzea.

#### **2.- 02/3. kontu fakturen zerrenda.**

Gobernu Batzordeak erabaki du ontzat ematea 3/02 zka. daraman kontu-fakturen zerrenda, 139.007,75 Eurokoa (EHUN ETA HOGEITA HEMERETZI MILA ETA ZAZPI EURO ETA HIRUROGEITA HAMABOST ZENTIMO), hurrengo zuzenketekin:

- 25-000-2002 erregistro zka. duen faktura, non dion: "Añarbeko Ur Mankomunitatea" eta esan behar du: "San Markos Mankomunitatea".

- 153-000-2002 erregistro zka. daraman faktura, non dion: "Preinca Aurrej. eta Ezinduen Elkargoa" eta esan behar du: "Gure Amets Gizarte Elkartea".

#### **3.- 1. ziurtagiria "Azkuene, 42. zk.an horma eta eskailerak indartu eta konpontzea" obrarena.**

Gobernu Batzordeak, Udal Aparejadoreak aurrez aldeko txostena emanik, erabaki du ontzat ematea "Azkuene, 42. zk.an horma eta eskailerak indartu eta konpontzea" obraren 1. ziurtagiria, Fernando Perez de Laka (Bide, Kanal eta Portuen-Kemen Injinerua) Obren jaun Zuzendariak luzatua EDIFICIOS, VÍAS Y PUENTES enpresa kontratistaren alde, 7.616,28 Euroren inportez (ZAZPI MILA SEIEHUN ETA HAMASEI EURO ETA HOGEITA ZORTZI ZENTIMO).

Hau guztia D-1194/01 Disposamenduaren kargura.

#### **4.- 4. ziurtagiria "Ricardo Arrillaga kalean igogailua jarri eta Trintxerpeko Itsas Institutuaren inguruko urbanizazio osagarria" obrarena.**

Gobernu Batzordeak, Udal Aparejadoreak aurrez aldeko txostena emanik, erabaki du ontzat ematea "Ricardo Arrillaga kalean igogailua jarri eta Trintxerpeko Itsas Institutuaren inguruko urbanizazio osagarria" obraren 4. ziurtagiria, Rodrigo Milla (Arkitektoa) Obra Zuzendari jaunak luzatua CONSTRUCCIONES ERGA, S.L. enpresa kontratistaren alde 84.012,44 Euroko inportez (LAUROGEITA LAU MILA ETA HAMABI EURO ETA BERROGEITA LAU ZENTIMO).

Hau guztia D-1494/00 Disposamenduaren kargura.

#### **5.- Zigor-espedientea, ixteko ordua ez betetzeagatik. Pub Zodiaco.**

Gobernu Batzordeak, aho batez, hartzen du honako

E R A B A K I A

#### EGITATEZKO OINARRIAK

LEHENA.- Alkateak 2001eko maiatzaren 31ean ebazpena eman zuen Zodiako Pubeko jabea den Rafael Angel Martínez Irigoyenen kontra espediente zehatzaileari hasiera ematen ziona. Udaltzaingoak egindako ordutegi-aktaren arabera, taberna maiatzaren 5ean goizeko 5,40etan irekita zeukan, eta barruan hogeit hamar pertsona zeuden; tabernan sartu-irtena egiteko ez zegoen eragozpenik, eta edariak zerbitzatzen ari ziren.

Aurreko hori, ondoko arauak urratzen dituelako: 296/1997 dekretuan, abenduaren 16koa, Jendaurreko Ikuskizun eta Jolasen Ordutegiari buruzkoa; eta, 210/1998 dekretuan, uztailaren 28koa, aurrekoa aldatzen duena. Timón bezelako taberna bereziak 3-etarako itxiak egon behar dira.

BIGARRENA.- 2001eko ekainaren 12an jakinarazi zitzaion espediente honi hasiera ematen zion ebazpena, hamabost egunetako epea emanez alegazioak idatziz aurkezteko. Ez du alegaziorik aurkeztu.

**HIRUGARRENA.**-2002ko otsailaren 6an erruztatuari jakinarazi zitzaien espediente honen instruktoreak egindako akordio-proposamena, entzunaldi edo audientzia tramitean egokia zeritzona alegatzeko. Ez du ezer aurkeztu.

### PROBATUTZAT JOTZEN DIREN GERTAERAK

Probatutzat jotzen da Rafael Angel Martinez Irigoyen Zodiako Pubeko jabeak taberna maiatzaren 5ean goizeko 5,40etan irekita zeukala, eta barruan bi pertsona zeudela; tabernan sartu-irtena egiteko ez zegoen eragozpenik, eta edariak zerbitzatzeko ari ziren.

### ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

**LEHENA.**- Aipatutako gertaerak eta erruztatuaren erantzunkizuna egiaztatuak izan dira Udaltzaingoak 2001eko maiatzaren 5ean egindako aktaren bitartez. Alegazioak egiteko emandako epean ez du alegaziorik aurkeztu.

**BIGARRENA.**- Jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzen dituen azaroaren 10eko 4/1995 legearen 34 g) atalaren arabera, honako gertaera hauei zigor arina dagokie: "ikuskitzen hasiera edo amaiera atzeratzea, edota ikuskizun nahiz jolas jardueretako lokalak irekitzeko eta ixteko orduak ez errespetatzea".

Lokalak irekitzeko eta ixteko orduak honako dekretuetan arautzen dira: 296/1997 dekretuan, abenduaren 16koa, Jendaurreko Ikuskizun eta Jolasen Ordutegiari buruzkoa; eta, 210/1998 dekretuan, uztailaren 28koa, aurrekoa aldatzen duena.

**HIRUGARRENA.**- Urraketa horren erantzulea Rafael Angel Martinez Irigoyen, Zodiaco Pubeko jabea da.

**LAUGARRENA.**- Aipatutako legearen 35.3 eta 36 ataletan zehazten da lege urratze arintzat jotako kasuetan aplikagarri direla 200.000 pezetarainoko zigorrak, eta kasu honetan proportzionala da 30.000 pezetatara isuna jartzea, kontutan hartuta ez dela herritarren aldetik salaketarik jaso.

### AKORDIOA

**LEHENENGO.**- Zodiaco Pubeko jabea den Rafael Angel Martinez Irigoyen jauna zigortzea, 180,30 Euroko isuna ezarriz, 4/1995 legearen (azaroaren 10ekoa, jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzen dituen) 34 g). atala urratzeagatik. Zodiaco Pub bezelako taberna bereziak 3:00etarako itxiak egon behar dira eta 5:40etan irekia zuen, barruan hogeit hamar pertsona zeuden; tabernan sartu-irtena egiteko ez zegoen eragozpenik, eta edariak zerbitzatzeko ari ziren

**BIGARRENA.**- Erruztatuari akordio hau jakinarazi beraren kontra jar daitezkeen errekurtsoen berri emanez.

## **6.- Axular Enparantza 2an obra egiteko baimen-eskaera.**

Ikusirik Ibon Mate Telleria jaunak 2002-02-20ko datan Axular plaza 2, 1.a B etxebizitzan berritze lanak egiteko OBRA TXIKIAK EGITEKO LIZENTZIA eskatu duela, hau da, sukaldea egongelatik banatzen duen pareta bota, sukaldeko baldosak aldatu, edateko uraren hodia eta saneamendukoa berritu, aginte-bakarra jarri, garbigailuko txorrota eta keak ateratzekoa ipini, eta fatxadaren itxitura eraisteko balkoia sukaldearekin bat eginez.

Udal teknikari aholkulariak aurkeztu duen dokumentazioan oinarrituz txostena egin du, eta bertan adierazten duenez, etxebizitzako balkoia jadanik itxita dago itxitura metaliko edo antzekoren batez, eta hau Pasaiaiko Udal Ordenantzen 084.1 artikulua dionearen kontra doa: *“Eraikinen kanpoaldearen tratamendua bateratua eta homogenea izatea exijituko da kasu guztietan”*. 60.6 artikulua berriz dio: *“Hegalen kontzeptuak (irekiak, erdi-itxiak eta itxiak) iraunkorrak izango dira denboran, hots, ezingo da geroago egindako itxiturarekin hegal irekiak itxi bihurtu, Planeamendu Arloetan zehazten diren salbuespenetan izan ezik”*

Gainera, aurkeztutako obra-lizentzi eskaerak etxebizitzaren barruko azalera handitzea proposatzen du, balkoia erantsita sukaldea handitzeko, eta hau egitea eraikitako azalera eta bolumena handitzea da, eta ezin da horretarako baimenik eman aprobetxamendua jadanik kontsolidatua dagoelako.

Obrak egiteko aurrekontua 2.496,42 Eurokoa da.

Horiek horrela eta kontuan hartuta 1999ko uztailaren 12ko Alkatearen Dekretua, hainbat eskumen Gobernu Batzordearen gain uzten dituenak, honek

### ERABAKI DU

LEHENENGO.- Ibon Mate Telleria jaunari OBRA TXIKIAK EGITEKO LIZENTZIA UKATZEA; ez delako zilegi etxebizitzaren barrua handitzea horretarako hegal baten azalera erantsiz (jatorriz irekia), eta ezta eraikinaren kanpoaldeko konfigurazioa aldatzea ere. Lizentzia zehazki, honetarako eskatu du: sukaldea egongelatik banatzen duen pareta bota, sukaldeko baldosak aldatu, edateko uraren hodia eta saneamendukoa berritu, aginte-bakarra jarri, garbigailuko txorrota eta keak ateratzekoa ipini, eta fatxadaren itxitura eraisteko balkoia sukaldearekin bat eginez.

BIGARREN.- Interesatuari ebazpen hau jakinaraztea, honen kontra jar ditzakeen errekurtsoen berri emanez.

## **7.- Gure Zumardia, 8-9 kalean obra egiteko baimen-eskaera.**

Gobernu Batzordeak, aho batez, hartzen du honako

## ERABAKIA

ROMAN EGAÑA SALABERRIAK 2002ko otsailaren 11an idatzi bat aurkeztu zuen, obra lizentzia eskatzen, hain zuzen ere, Gure Zumardia 8 eta 9an lokala tabernatarako egokitzeko gauzatze proiektuaren insonorizazioari buruzko kapitulua egiteko.

Taberna jarduera handitu nahi denez, J.I.G.O.K.A.ei dagokien tramitazioa jarraitzen dugu.

Udal teknikari aholkulariak txostena egin du.

Kontuan izan dugu Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Lege Orokorraren 61.1 artikulua.

Gobernu Batzordea da obra lizentzia eskaerak ukatzeko organo eskuduna, Alkateak 199ko uztailaren 12ko Ebazpenean ahalmen hori eman baitzion.

## AKORDIOA

LEHENENGO.- Roman Egaña Salaberriak 2002ko otsailaren 11an egindako eskaera ukatzea, hain zuzen ere, Gure Zumardia 8 eta 9-an lokala tabernatarako egokitzeko gauzatze proiektuaren insonorizazioari buruzko kapitulua egitekoa. Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Lege Orokorraren 61.1 artikulua dio ezin izango dela obra lizentziarik eman aurretik jarduera lizentzia ematen ez bazaio, eta azken hori tramitatzen ari da.

BIGARRENA.- Ebazpen hau interesdunari jakinarazi beraren kontra jar daitezkeen errekurtsoen berri emanez.

## **8.- Borda-Enea, 2 kalean obra egiteko baimen-eskaera.**

Ikusirik Teresa García Pérez andreak 2002-02-18ko datan OBRA TXIKIAK EGITEKO LIZENTZIA eskatu zuela, bere etxebizitzaren kanpoko leiho-arotzia aldatzeko (Borda-enea kalea, 2-6. ezk.), zehazki, sukaldean bi orriko gidaridun atea, ezaugarri bereko beste ate bat egongelan, eta gero bi leiho jartzeko aluminio lakatuzkoak, kolore zurikoak, pertsiana aluminiodunekin.

Ikusirik Udal teknikariak eskaera honi buruzko kontrako txostena luzatu duela, ikuskatze-bisita egin ondoren (2002-02-22); bertan adierazten denez, eskatutako obrek aldatu egiten dituzte fatxadako hutsuneen neurriak, egungo leiho eta hutsuneen neurriak eta ezaugarriak aintzat hartu gabe.

**ETA  
EZ**



Obrak egiteko aurrekontua 3.701,59 Eurokoa da.

Horiek horrela eta kontuan hartuta 1999ko uztailaren 12ko Alkatearen Dekretua, hainbat eskumen Gobernu Batzordearen gain uzten dituenak, honek

## E R A B A K I D U

**LEHENENGO.-** Teresa García Pérez andeari OBRA TXIKIAK EGITEKO LIZENTZIA UKATZEA, hirigintzako arategiaren arabera, eraikinen kanpoaldeek homogeenak izan behar dutelako. Lizentzia ukatzen zaio: Borda-enea kaleko etxebizitzan, 2-6. ezk., sualdean bi orriko gidaridun atea, ezaugarri bereko beste ate bat egongelan, eta gero bi leiho jartzeko aluminio lakatuzkoak, kolore zurikoak, pertsiana aluminiodunekin

**BIGARREN.-** Hala ere, baimena eman ahalko zaio, baldin eta atalez atal egindako aurrekontua aurkezten badu, errespetatuz egungo leihoen neurriak, mota eta kolorea, eta era berean egungo leihoen argazkiak aurkezten baditu.

**HIRUGARREN.-**Udal tasak likidatzea, behar bezala jakinarazi eta gero.

**LAUGARRENA.-** Interesatuari ebazpen hau jakinaraztea, honen kontra jar ditzakeen errekurtsoen berri emanez.

### **9.- Obrak legezatzeko eskaera: Juan XXIII, 3.**

Zirilo Garmendia Lertxundi jaunak 2002-02-25eko datan Juan XXIII, 3, 1.a esk. duen etxebizitzan egindako obrak legezatzeko eskatu zuen. Egindako obrak honakoak izan dira: Balkoira ematen duen leihatea kendu eta aurrekoaren ordez PVCko arotzia jarri, kolore zurikoa, gidaridun bi orri dituenak, 2100 x 2200 mm-koak, eta pertsianak aluminiozko lamadunak.

Udal teknikari aholkulariak eskaera honi buruzko kontrako txostena egin du, ikuskatze-bisita egin ondoren. Txostenean aditzera ematen duenez, ezarri den leiho arotziak aldatu egiten du zabalerari dagokionez lehengo leiho arotzia, eta halaber arkitektura-konfigurazioa, fatxadak lehen zuen itxura aldatuz.

Obrak egiteko aurrekontua 667,77 Eurokoa da.

Pasaiako Arau Subsidiarioen 084.1 artikulua eraikinen kanpoaldearen tratamendu bateratua eta homogeenoa exijitzen du.

Gobernu Batzordeak, 1999ko uztailaren 12an jasotako konpetentziak direla eta organo eskuduna denez,

## ERABAKI DU

LEHENENGO.- Cirilo Garmendia Lertxundi jaunari EGINDAKO OBRA TXIKIAK LEGEZTATZEKO LIZENTZIA UKATZEA. Pasaiaiko Arau Subsidiarioen 084.1 artikulua, eraikinen kanpoaldeek homogeneoak izatea exijitzen baitu. Lizentzia ukatzen zaio egindako obra hauengatik: Balkoira ematen duen leihatea kendu eta aurrekoaren ordean PVCko arotzia jarri, kolore zurikoa, gidaridun bi orri dituen, 2100x2200mmkoak, eta pertsianak aluminiozko lamadunak.

BIGARREN.- Interesatuari ebazpen hau jakinaraztea, honen kontra jar ditzakeen errekursoen berri emanez.

### **10.- Zigor-espeditentea zarata eragiteagatik Salinas, 7 kalean. Pitis taberna.**

A) Gobernu Batzordeak, aho batez, hartzen du honako

## ERABAKIA

### EGITATEZKO OINARRIAK

LEHENA.- Alkateak 2001eko ekainaren 4ean ebazpena eman zuen, Pitis Tabernako jabea den Francisco Ouviña Soutoren kontra espeditente zehatzaileari hasiera ematen ziona. Udaltzaingoak 2001ko otsailaren 5ean Pasaiaiko Salinas 7, 1. A. etxebizitzan egindako zarata-neurketa aktaren arabera, han agertu bait ziren bertakoen salaketa jaso ondoren, egiaztatzen da funtzionamenduan zegoen Pitis Tabernatik ondoko zarata mailak jasaten zirela

2001eko otsailaren 5eko 00:15etan:

Logelan.....42,2 dB (A)  
Egongelan .....37,5dB (A)  
Beste gelatan..... dB (A)

Establezimenduetatik ondoko etxebizitzetara iritsi daiteken zarata mailak Ordenantzaren 4.4 artikuluan jasotzen dira:

Egunez (8etatik 22etara)      Gaez (22etatik 8etara)

Egongeletan.....45 db (A)                      35 dB (A)

Logeletan .....40 dB (A)                      32 dB (A)  
Zerbitzu eta gune amankomunak .....45 dB (A)                      45 dB (A)

Aurreko horrek ondoko araua urratzen du: Udalerriko Bizilagunak Babesteko Ordenantzaren 4.4 artikulua (G.A.O. 1985ko azaroaren 8koa).

**BIGARRENA.-** 2001eko ekainaren 21ean jakinarazi zitzaizkion espediente hauei hasiera ematen zioten ebazpenak, hamabost egunetako epea emanaz alegazioak idatziz aurkezteko. Ez du alegaziorik aurkeztu.

**HIRUGARRENA.-** 2001eko abenduaren 14ean akordio proposamena jakinarazi zitzaion eta audientzia eman beraren aldeko alegazioak egin zitzaion. Emandako epean ez du ezer aurkeztu

#### PROBATUTZAT JOTZEN DIREN GERTAERAK

Probatutzat jotzen da 2001ko otsailaren 5ean eta apirilaren 18ean Pasaia Salinas 7, 1. A. etxebizitzan, funtzionamenduan zegoen Pitis Tabernatik ondoko zarata mailak jasaten zirela, Udaltzaingoak egindako Zarata Neurketa agiriaren arabera:

2001eko otsailaren 5eko 00:15etan:

Logelan.....42,2 dB (A)  
Egongelan .....37,5dB (A)  
Beste gelatan..... dB (A)

#### ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

**LEHENA.-** Aipatutako gertaerak eta erruztatuaren erantzunkizuna, Francisco Ouviaña Soutorena, alegia, egiaztatuak izan dira Udaltzaingoak 2001eko otsailaren 5 eta apirilaren 18ean egindako akten bitartez. Alegazioak egiteko emandako epean ez du alegaziorik aurkeztu.

**BIGARRENA.-** Bizilagunak Babesteko Ordenantzaren 6.4 e) artikuluan (1985eko azaroaren 8ko G.A.O.) urraketa oso larrizat jotzen da, eta 4.4 artikuluekin erlazioan jarri behar delarik, baimendutako gehienezko zarata mailak ezartzen bait ditu. Urraketa horri 10.000 eta 15.000 pezeta bitarteko isuna dagokio Ordenantzaren 6.5 artikuluan arabera.

**HIRUGARRENA.-** Urraketa horren erantzulea Francisco Ouviaña Soutoren, Bar Pitise-ko jabea da.

**LAUGARRENA.-** Aipatutako Ordenantzaren 6.5 artikuluan zehazten da lege urratze larrizat jotako kasuetan aplikagarri direla 15.000 pezetarainoko zigorrak, eta kasu honetan proportzionala da 15.000 pezetatiko isuna jartzea, kontutan hartuta herritarren aldetik salaketa jaso dela.

BOSTGARRENA.- Gobernu Batzordea da organo eskuduna espediente honi amaiera emateko eta dagokion zigorra jartzeko, 1999ko uztailaren 12ko Alkatetza Ebazpenak bere gain uzten bait du eskumen hori.

## A K O R D I O A

LEHENENGOA.- Bar Pitis tabernako jabea den Francisco Ouviña Souto zigortzea, 15.000 pezetatako isuna ezarriz, Bizilagunak Babesteko Ordenantzaren (1985eko azaroaren 8ko G.A.O.) 4.4 artikulua urratzeagatik, baimendutako gehienezko zarata mailak ezartzen bait ditu.

BIGARRENA.- Proposamen hau erruztatuari jakinaraztea beraren kontra jar ditzakeen errekurtsoen berri emanez.

B) Gobernu Batzordeak aho batez hartzen du honako

### E R A B A K I A

#### EGITATEZKO OINARRIAK

LEHENA.- Alkateak 2001eko ekainaren 4ean ebazpena eman zuen, Pitis Tabernako jabea den Francisco Ouviña Soutoren kontra espediente zehatzaileari hasiera ematen ziona. Udaltzaingoak 2001ko apirilaren 18ean Pasaiako Salinas 7, 1. A. etxebizitzan egindako zarata-neurketa aktaren arabera, han agertu bait ziren bertakoen salaketa jaso ondoren, egiaztatzen da funtzionamenduan zegoen Pitis Tabernatik ondoko zarata mailak jasaten zirela

2001eko apirilaren 18eko 21:00 etan:

Logelan.....42 dB (A)  
Egongelan ..... dB (A)  
Beste gelatan..... dB (A)

Establezimenduetatik ondoko etxebizitzetara iritsi daiteken zarata mailak Ordenantzaren 4.4 artikuluan jasotzen dira:

Egunez (8etatik 22etara)      Gaez (22etatik 8etara)

Egongeletan.....45 db (A)	35 dB (A)
Logeletan .....40 dB (A)	32 dB (A)
Zerbitzu eta gune amankomunak .....45 dB (A)	45 dB (A)

Aurreko horrek ondoko araua urratzen du: Udalerriko Bizilagunak Babesteko Ordenantzaren 4.4 artikulua (G.A.O. 1985ko azaroaren 8koa).

**BIGARRENA.-** 2001eko ekainaren 21ean jakinarazi zitzaizkion espediente hauei hasiera ematen zioten ebazpenak, hamabost egunetako epea emanaz alegazioak idatziz aurkezteko. Ez du alegaziorik aurkeztu.

**HIRUGARRENA.-** 2001eko abenduaren 14ean akordio proposamena jakinarazi zitzaion eta audientzia eman beraren aldeko alegazioak egin zitzaion. Emandako epean ez du ezer aurkeztu

### PROBATUTZAT JOTZEN DIREN GERTAERAK

Probatutzat jotzen da 2001ko apirilaren 18ean Pasaiako Salinas 7, 1. A. etxebizitzan, funtzionamenduan zegoen Pitis Tabernatik ondoko zarata mailak jasaten zirela, Udaltzaingoak egindako Zarata Neurketa agiriaren arabera:

2001eko apirilaren 18eko 21:00 etan:

Logelan.....42 dB (A)  
Egongelan ..... dB (A)  
Beste gelatan..... dB (A)

### ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

**LEHENA.-** Aipatutako gertaerak eta erruztatuaren erantzunkizuna, Francisco Ouviaña Soutorena, alegia, egiaztatuak izan dira Udaltzaingoak 2001eko apirilaren 18ean egindako zarata-neurketa aktaren bitartez. Alegazioak egiteko emandako epean ez du alegaziorik aurkeztu.

**BIGARRENA.-** Bizilagunak Babesteko Ordenantzaren 6.4 e) artikulua (1985eko azaroaren 8ko G.A.O.) urraketa oso larritzat jotzen da, eta 4.4 artikulua erlazioan jarri behar delarik, baimendutako gehieneko zarata mailak ezartzen bait ditu. Urraketa horri 10.000 eta 15.000 pezeta bitarteko isuna dagokio Ordenantzaren 6.5 artikulua arabera.

**HIRUGARRENA.-** Urraketa horren erantzulea Francisco Ouviaña Souto, Bar Pitise-ko jabea da.

**LAUGARRENA.-** Aipatutako Ordenantzaren 6.5 artikuluan zehazten da lege urratze larritzat jotako kasuetan aplikagarri direla 15.000 pezetarainoko zigorrak, eta kasu honetan proportzionala da 15.000 pezetatiko isuna jartzea, kontutan hartuta herritarren aldetik salaketa jaso dela.

**BOSGARRENA.-** Gobernu Batzordea da organo eskuduna espediente honi amaiera emateko eta dagokion zigorra jartzeko, 1999ko uztailaren 12ko Alkatetza Ebazpenak bere gain uzten bait du eskumen hori.

### A K O R D I O A

**ETA  
EZ**



LEHENENGOA.- Bar Pitis tabernako jabea den Francisco Ouviña Souto zigortzea, 15.000 pezetatako isuna ezarriz, Bizilagunak Babesteko Ordenantzaren (1985eko azaroaren 8ko G.A.O.) 4.4 artikulua urratzeagatik, baimendutako gehienezko zarata mailak ezartzen bait ditu.

BIGARRENA.- Establezimenduaren jabeari oharraraztea zaratari buruzko neurri zuzentzaileak berriro ez baditu betetzen baimena aldi baterako kendu egingo zaiola ondorioz jarduera klausuratuz santzioak iraungo duen bitartean.

HIRUGARRENA.- Proposamen hau erruztatuari jakinaraztea beraren kontra jar ditzakeen errekurtsioen berri emanez.

\* Gaizerrendatik at eta bertako zinegotziek aho batez bertan sarturik, hurrengo akordioa hartu da:

### **11.- Gizarte Larrialdirako Diru Laguntzak aldatzea.**

Ikusirik Gizarte Zerbitzuetako Arduradunak 2002ko maiatzaren 22an aurkeztutako proposamena, 1 zka. daraman proposamenari buruzko Gizarte Larrialdiko Diru Laguntzak aldatzeaz, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- 1 zka. daraman proposameneko Laguntzak aldatzea, Gobernu Batzordeak 2002ko otsailaren 25eko batzarraldian onartuak, espedientean agertzen den onuradunarenak eta adierazten diren zioak direla eta, bertan agertzen den kantitatea anulatuz.

BIGARREN.- Inporte hau Gizarte Larrialdiko partidara itzulia izan dadila.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri Kontuhartzaitzako Sailari ematea.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 19:00etan, batzarraldia amaitutzat eman da, honen eduki guztia akta honetan jasoz, hau Alkate jaunak eta nik, Idazkari bezala ziurtatuz, sinatu dugularik.